

KARTING KUTXA 2013 TXAPELKETA

Txapelketan 4 lasterketa izango dira, eta honako zirkuitu hauetan egingo dira:

1- BESKOITZE (BRISCOUS)

2- MAGESCQ

3- BESKOITZE (BRISCOUS)

4- MAGESCQ

Puntuazio-sistema honako hau izango da:

1. sailkatua 24 puntu
2. sailkatua 22 puntu
3. sailkatua 20 puntu
4. sailkatua 18 puntu
5. sailkatua 16 puntu
6. sailkatua 14 puntu
7. sailkatua 13 puntu
8. sailkatua 11 puntu
9. sailkatua 10 puntu
10. sailkatua 09 puntu
11. sailkatua 08 puntu
12. sailkatua 07 puntu
13. sailkatua 06 puntu
14. sailkatua 05 puntu
15. sailkatua 04 puntu
16. sailkatua 03 puntu
17. sailkatua 02 puntu
18. sailkatua 01 puntu

18 lasterketari baino gehiago badaude, hurrengoek ez dute punturik izango.

Lasterketen antolaketa

-Lasterketa guztiek sistema berbera izango dute:

Txanda kronometratua irteerako tokietarako sailkatzeko. Eta 10 minutuko **bi lasterketa**.

Lehenengoa sailkapen-txandaren arabera.

Bigarren lasterketa, lehenengo lasterketako helduera-ordenaren alderantzizkoan irtenda.

-Kart-ak sailkapen-txanda baino lehen zozketatuko dira.

-Lasterketak mistoak izango dira (Kutxen arteko Txapelketak formatu hau baitu).

-Garaikurrak izango dira lasterketa bakoitzean lehenengo hiru sailkatuentzat, eta oparia txapelketako lehenengo hiru sailkatuentzat.

Kutxen arteko kart txapelketa

Tokia sailkapen- eta puntuazio-ordenaren arabera lortuko da.

Gutxienez bi proba egin behar dira tokia lortzeko.

Puntuetan berdinketa dagoenean, proba gehiagotan parte hartu duenari emango zaio lehentasuna; lasterketa kopuru berbera egin badute, lasterketan toki onena duenari; eta horretan ere berdin baldin badaude, parte-hartzaile gehieneko proban sailkapen onena duenari. Berdinketa desegiteko azken baliabidea, lasterketa bakoitzeko itzuli lasterra izango da.

Segurtasuna:

Aurrea hartzei dagokienez, erabat debekaturik dago aurkari bati ixtea edo talka egitea, bere aurreko gurpilak gure atzekoen parean baldin baditu.

KARTING KUTXA TXANDA LIBREAK

Aurten, berrikuntza gisa, karting jardueraren eskaintza zabalagoa izango da honako hauekin:

Txanda libre kronometratuak

Jarduera hau sekula kart batean ibili ez direnentzat da, eta/edo lasterketaren tentsioa atsegin ez baina "auto txiki" hauetako batekin probatu eta dibertitzeko gogoia dutenentzat.

Funtzionamendua oso erraza da:

10 min.ko hiru txanda, non kontrolatzen den gauza bakarra parte-hartzaile bakoitzaren denbora baita; beraz, egin behar duzun gauza bakarra gainerakoak errespetatu eta dibertitzea da.

Txanda libreak txiki geratzen zaizkizula iruditzen bazaizu edota lehiak tentatzen bazaitu, urteko edozein probatan pasa zaitezke modalitate batetik bestera.

Mugak

Txanda libre kronometratuen modalitatean parte hartzen dutenak:

Ez dute garaikurrik izango

Ezingo dira sartu Kutxen artekoan Kutxaren ordezkari izango den taldean

Segurtasuna

Balazta ezkerreko pedala da

Okertu bihurguneetan

Saihestu gainerakoak